

## **DGA, 20-23 (DGAZ, 13-16)**

### [TARRAS-NARRAS]

Tarras-narras,  
gauzak ondo egin guraz,  
gura nukeen askotara  
ezin ailegatuz,  
ezinaren kontrako borrokan,  
eginkizun hurbilenei lotuta beti,  
etxetik irteteko nagiz,  
eskutitzei erantzuteko alferkeria, baino  
gehiago den zerbait  
bentzutu ezin halako  
atzera daragidan barru-barruko  
oztopoz,  
bekokia zimur,  
egin behar eta egin gabe uzten dudanaren  
kezkaz,  
betiko zerbaiten kezkaz,  
zertan jaramonik egin ez diedan arazo berberen  
arduraz,  
edozerterako esturaz,  
tarras-narras, barrutik neure burua  
hondatuz,  
gauzak gura nituzkeen bezain ondo egiten  
ez ditudalako  
betiko amorruz,  
neure buruaren kontrako amorruz azken batean  
beti,  
muker eta umore txarreko,  
lagun-artetik ihesi-zale,  
bakarti,  
kontentagaitz,  
horra ni neurez,  
erraz antzik eman ezin diodan,  
aitortu ere aitortu gura ez dudan,  
azpi-azpiko eta barru-barruko  
harrokeria ondo mehe eta ondo ezkutatuaren  
morroi esaneko eta zintzo,  
hurkoen patxadari,  
hutsak eta akatsak eramateko duten gauzatasuna-  
ri begiratzeko gogorik gabe,  
begiratzeko gauza ere ez naizela,  
inkontzienteki baino ez bada ere,  
salatuz eta gaitzetsiz eta arbuiatuz  
horrelako jokaera hori,  
neure buruaren imajina,  
ez bistako ahaleginez,  
baina bai eragin ondo mehez

eta ondo ezkutuz  
etengabe zaindu guran,  
hobetu guran ere bai,  
nahiz eta argi ikusten ez dudan,

gatibu azken batean  
askatasunaren irrikak baino  
beste ezerk bizi ez duen hau.

Barrukoz kanpora, iduleztara jarri nahi nuke  
buru hau

eta barrukoz kanpora bizi  
haizeak eta euriak garbi nazaten,  
hurkoen, lagunen, jendearen begiek  
garbi ikus -ikuz- nazaten,  
hurkoen, lagunen, jendearen begiak  
garbitzaileago direlako  
haizea eta euria bera baino.  
Orduan ez nuke tarras-narras ibili beharrik,  
ez nuke zer gorde eta zer zuriturik,  
ez nuke neure barruan honenbesteraino bizi beharrik,  
neure presentzia agertuko nuke orduan,  
naizen-naizenean-agertuko nintzateke  
inoren eta neure buruaren aurrean  
eta ezinik ezin diezadakeela eska ikusiko  
luke jendeak,  
baina batez ere neuk ikusiko nuke ondoen  
ezin dudala bururik ezinera  
behartu,  
eta lasaiago hartuko nuke orduan neure burua  
eta konformeago biziko nintzateke  
eta poz gehiagoz  
eta askatasun gehiagoz  
eta zutiago  
eta bistarago,  
neure neurrien errealtitateaz etsiago  
eta dagidanaren erlatibotasunaz etsiago  
eta bizitzari eta inguruari eta neure eginkizu-  
nei buruzko erresponsabilitatea  
nabarmenduz baino  
neurri justu eta amore emankorragoz bizitzera  
etsiko nuke  
eta ez nintzateke hainbeste eta hain alferrik  
estutuko  
eta, duda gabe, zoriontsuago nintzateke egiaren  
argitan  
eta liberalago denboraren administrazioan,  
ordu guztiak neure buruarentzat gordez  
ez baina  
zabaltasunez eskainiz haien beharrean  
legokeenari  
eskutitzei erantzuteko zikoizkeria gabe  
jendearekin hitzaspertutan iharduteko  
zenkenkeria gabe,  
ezagutzen ez dudan, baina nolabait barrundatzen

dudan bide horretatiko atsegina  
dastatu eta bizitzeraino biziko nintzateke  
eta isurtzeraino bizi nezakeen atsegin hori  
neure buruaren eta inguruaren  
gozamen gozorako.  
Nolanahi ere bake gehiago nuke  
eta bake-aire gehiago  
eta bizitzarekiko jarrera, jokaera eta eriz-  
keria ederragoa, mamitsuagoa, zabalagoa,  
bizitzari berari dagokionagoa,  
bizitza hedakunde bait da, asaskakunde  
eta pozezko pozaren isurkunde ekin eta ekinezko ugari  
eta komunikakorra.